

EBZ: ZERGATIAK, OINARRIAK, HELBURUA

1. SARRERA. METODOAREN MUGEZ.

- “Euskara nondik datorren”: beti egongo da iritsi garena baino lehenagoko egoera bat, giza hizkuntzaren hasierara heldu arte, eta hori urrutiegi da berreraikitzeko.
- Izendatze arazoa: gaztelania une batetik aurrera “latina” deitzen da. Euskara beti “euskara”, baina ezberdintasun asko: orduko jendeak eta guk ez dugu hizkuntza berean hitz egiten.
- Lekukotasuna urri eta berankorrek dira, familiako hizkuntzarik ez, berreraiketa teknika estandarrak boteretsuago eta gure ikersailari egokituagoak behar genituzke.
- Halere, lehen baino urrutiago jo.
- Egun munduan diren hizkuntza naturalak, denak datoz duela 100.000 eta 200.000 urte bitartean Afrikan bizi zen arbaso hark, bere giza taldeak eta aldamenekoek hitz egiten zuten lehen hizkuntza horretatik (edo horietatik).
- Orain lantzen ari den hipotesia: duela 100.000 eta 20.000 urte bitartean gertatutako mutazio genetiko baten eraginez sortu omen zen giza hizkuntza, lehenagoko gizakien mintzamina errotik aldatuta (lehen animalien hizkuntzatik gertuago egongo zen).
- Duela 5.000 urtetako lekukotasun idatziak ditugu hizkuntza edo hizkuntza familia gutxitan:
 - (a) Suomiera, egiptoera, txinera: k. a. 3. milurtekoan.
 - (b) Hititera: k. a. 2. milurtekoan.
 - (c) Greko zaharra: k. a. 1. milurtekoan.
 - (d) Maia: k. o. 250 urte g. g. b.
- Aztarnarik utzi gabe hil diren hizkuntzak berreraikitzea ezinezkoa da.
- Metodoak baditu bere mugak:
 - (1) Datuek ematen diotenetik atzerago ezin eginga. Euskararen historian, Mitxelenaren lanarekin duela 2.000 urteko euskara baino ez genuen berreskuratu, eta ikuspegi berriagoan ere (Lakarra 1995) beste 2 edo 3.000 urte baino ez bide ditugu irabazi.
 - (2) Ez dago datazio zehatzik ematerik; datazio erlatiboak soilik. Datazio zehatzak ematekotan, gertakari historikoetara jo. Hori da Mitxelenak EBZ-a kokatzeko erabili zuen metodoa.

2. KRONOLOGIA ERLATIBOAK ETA PERIODIZAZIOA.

- Historiurrean garai ezberdinak bereizteko modua aurkitu da.

- IE-ren garai ezberdinak (Adrados 1988):

- (1) IE flexiourrekoa: ez da inon gorde.
- (2) IE flexiodun monotematikoa: anatolieran gorde.
- (3) IE flexiodun politematikoa: anatolieraz beste hizkuntzena.

- Euskararen garai ezberdinak:

(1) AE: ditugun datuekin berreraiki dezakegun garaietan gugandik antzinakoena.

- (a) AEZ: Lakarra (1995) berreraikitzen ari dena, CVC erako silaba bakarreko erroak zituena; aurrizkiak, aditza hasieran...
- (b) AEB: Martinet-ek eta, bereziki Mitxelenak berreraiki zuena, `lenis` / `fortis` oposaketakoa. Erromatarrekin kontaktua hastean (k. a. 2. mendea) eta aurretik.

(2) EBZ: ditugun datuekin berreraiki dezakegun garaietan gugandik hurbilena, euskalki historikoen ama-hizkuntza (k. o. 5-6 mendeak, Mitxelenaren arabera).

- Birpasa ditzakegu:

(1) AEZ:

- (a) Lakarrak ez zuen datatu, baina Trask-ek (1997) dioenez, Mitxelenaren AEB baino askoz ere zaharragoa izan behar du: "long, long before...some 2.000 years". Beste 2.000 urte lehenagokoa? Historian kokatzeko baliagarri izan daitezkeen datuak.
- (b) Edozein eragin IE baino lehenagoko euskara batez ari gara.
- (c) Iberierak euskararekin nolabaiteko kontaktu historikorik izan bazuen (eztabaidatua da), baliteke garai honen bukaeran hastea (Brontze Aroa, k. a. 2. milurtekoa).

(2) AEB:

- (d) Martinet-ek (1955) k. a. 2. mendean erromatarrekin kontaktua hastean zegoen hizkuntz egoerarako ematen du `lenis` / `fortis` sistema. Mitxelenak: erromatarrek etorri zirenean aurkitu zuten euskara litzateke.

- (e) Erromatarrak k. a. 2. mendearen erdialdean iritsi ziren gure ondora Hispaniatik, eta k. a. 1. mendearen erdialdean Julio Zesarrek Galia osoa konkistatu zuen. Kantabriar eta asturiarrak ondoko urteetan (k. a. 29-19).
- (f) IE-ren eragina agian bai zelten bitartez, eta iberierarena ere, baina latinarena oraindik ez.

(3) AE-ren bilakaera latinarekiko ukipenaren azpian:

- (a) Akitanierazko lekukotasunak (k. o. 1-3).
- (b) Martinet-ek (1955) uste du leherkari hasperendunen soiltzea (“*Th-” > “h-”) latina eta euskara harremanetan hasi eta gero gertatuko zela.
- (c) `lenis'-en ahostuntzea + `fortis'-en galera: garai honetan hasiko zen (cf. “Talsco” vs. “Halsco”).
- (d) Neutralizazio sistema: badirudi EBZ-ra iritsi baino lehenagoko direla “*Th-” > “h-” eta “T-” > “D-”, hots leherkari bortitzen espirantizazioa eta ahulen ahostuntzea.

(e) Leherkariak:	<u>AEZ</u>	<u>AEB</u>	<u>EBZ</u>
	?	Th- -T-	-T
		d- -d-	d- (-T)
	?	“Karratua”	“Erronboa”

- (f) Bereizi behar dira EBZ eta “euskara komuna”: euskara komuna ez da garai zehatz bat, baizik eta ezaugarri multzo bat = euskalkietan ditugun batetortzeak. Denak ez dira EBZ-tik etorriak:

(1) Arkaismo gordeak (EBZ-tik datozenak), euskalki guztiak etorki berekoak direla erakutsi.

(2) Berrikuntza konpartituak: harremanak oso estuak direla erakusten dute; artikulua eta deklinabide historikoa, adibidez.

(i) Fonologian:

-Ozenen tratamendua: “n” > “h”, “l” > “r”, “ll” > “l”.

- Hitz hasierako herskariaren ahostuntzea.

- Hitz eraketan 1. osagaiaren aldaketak.

* X. menderako burututa zeuden aldaketok, baina Akitanieran (I-III), ez.

(ii) Morfologian:

- Artikulu sistema, Europako beste hizkuntzen bateratsu sortu.

- Aditz perifrastikoak hedatzea, Europako beste hizkuntzen antzera.

- Hiru perifrasi nagusiak iragangaitzetara mugatuz: `Ø + edin´, `-i / -tu + izan´, `-te / -tze + izan´, jatorri eta garai ezberdinetakoak.

- Plurala ere aski berria da, erromantze garaikoa (erakuslearekin lotua).

(4) Euskara Batu Zaharra (k. o. 5-6 mendeak):

(a) Ordurako erronboa genuen leherkarietan (lehenagotik ozen eta txistukarietan). Deklinabide urria, kasu gutxiagorekin eta mugatu singular ez pluralik gabe, artikulua bera ere falta. Espainiako erromantzeetan 8. mendean sortzen da artikulua; euskaraz beranduago. Erakusgarri dugu 11. mendean hirugarren graduko oraindik “-ha” zenbait gordetzea.

(b) Aditzeko zenbait perifrasi (perfektukoa [-i / -tu] bereziki) garai honetakoak bide dira.

(c) Beharbada “euskara komuna” izan arren ez dira EBZ-ekoak, baizik beranduagokoak, eratorpenean eta konposaketan lehen osagaien aldaketak: “idi” + “aurre” > “itaurre”...

3. EBZ-AREN SORRERAZ.

- Gizarte egitura batua behar zen. Noiz gertatu zen euskalkien bereizketa?

(a) /h/-ren galera 10. menderako nabarmena da Nafarroa Garaian.

(b) “barri” / “berri” txandakatzeak 10-11. mendeetan.

(*) Hortaz, 10. mendea baino lehenago izan behar zuen.

- Meillet-ek (1925): hizkuntza batuak zibilizazio batua behar du.

- Mitxelenaren ondorioa: euskaldunak bisigodoen aurka bildu ziren (5-6 mendeetan), orduantxe izan zitekeen halako egoera bat.

- Arazoa: eredu historiko zaharkitu batean oinarritu zen (Barbero & Vigil, 1965).

- Euskal Herria monarkia franko eta bisigodoaren arteko tirabira-puntu batean egonik, baliteke 6-7 mendeetan bertako tokian-tokiko agintariek, Inperioaren gainbeheraren ondoko egoera berrian euren lekua aurkitu nahian, batzuetan frankoen kontra, bestetan bisigodoen kontra aritzea, eta ziurrenik bestetan elkarren lehian ere (Azkarate 2004).

- Garai hartako lurperatzeko moduek adierazten dute kontinentalak zirela, euskaldunak 'iparrera begira' zeudela, frankoen aldera: "pudo ser un agente reactivador de ciertos procesos de etnogénesis (batasun etnikoa sortzea)".

- Ondorioak: zenbat eta zaharragoa egiten dugun EBZ, orduan eta euskalkien arteko ezberdintasun handiagoak itxarongo genituzke, eta ez dirudi hori gertatzen denik. Komeniko litzateke, ahalik eta EBZ berankorrena proposatzea, diferentzia horiek txikiagoak bailirateke. Kontua da historialariek hain beranduko batasunik, eragile politiko eta ekonomikorik onartuko luketen.

4.EBZ-AREN ZATIKETA ETA DIALEKTOEN SORRERAZ.

- Euskara ez da hizkuntza 'bateratua'; dialekto eta hizkeratan banatuta egon da eta dago.

- Egoera normala da hizkuntzetan. Euskararen berezitasuna, bi ezaugarriok batera agertzea da:

(1) Banaketa izugarria hain eremu txikian.

(2) Araupeko hizkera estandarrik ez egotea.

- Araupeko barietateak izan badira, baina aukeran gehiegi eta berankorrak: bat ere ez da Euskal Herri osora hedatu: literatur euskalkiak (G, B, L, Z).

- Euskalkien zatiketari buruzko bi iritzi nagusi:

(1) Euskalkiak hizkuntz egoera batu batetik datoz (Vogt 1955); euren egitura fonologiko eta morfologikoa funtsean berbera da; mailegu ugariak gora behera, hiztegi nahiko bateratua ere badute. Vogt-en ondorioa: EBZ (euren jatorria) ezin da eurentariko oso aspaldikoa, ezberdina izan.

(2) Bestelako iritzia dute Lacombe-k eta Gorostiagak: bi euskalki, B eta gainerakoak (B/G mugan etena vs. gainerakoaren arteko mailakatze leunak). Sailkapen bitarra:

Euskara = A (Bizkaiera) + B (Gipuzkera, Lapurtera,...)

- Bertsio gogorragoa Uhlenbeck-ek (1947): jatorriz bi hizkuntza desberdin ziren, eta kontaktu luze baten ondorioz hurbiltzen joan dira:

Mendebaldeko hizkerak = Bizkaiera

Ekialdeko hizkerak = Gipuzkera, Lapurtera,...

- Hizkuntzek bat egitea gerta daiteke, baina horren ondorioa hirugarren hizkuntza bat izatean da, ez A ez B dena (pidgin eta kreolerak). Hau ez da gertatu.

- Banaketa bitarraren kritika sendoena Mitxelenak (1964, 1981). Argudioak kontra:

- (1) Argudio subjektiboa: bizkaiera, norentzat da hain desberdina? Gipuzkoar batentzat, B ala Z bitxiago, urrunago?
- (2) B/G arteko muga bortitza, non? Agian Oñati eta Brinkola artean, baina ez hainbestekoa Eibar eta Elgoibar artean.
- (3) Bizkaierazkotzat hartutako ezaugarri asko G-ren barruan sartzen dira:
 - (a) “aa” > “ea”.
 - (b) `egin´ laguntzailea, `*ezan´-en orde.
 - (c) B “urten dau”, G “erten du” (ekialderago “atera” edo “jalk(h)i”).
 - (d) “-kin” B-n sartzen da (“-gaz” ez da bakarra).
- (4) Arabako euskara: hegoaldean ez zen izango jauzirik, B eta G artean uste bezala. Mitxelenak zubi-hizkeratzat jo zuen.

- Hortaz, B euskalki bat baino ez da:

- (1) Bazterreko dialekto guztiek ezaugarri bereziak:
 - (a) Arkaismoak gordetzeko joera.
 - (b) Berrikuntza ugari hizkuntza kontaktuagatik.
- (2) B ≠ Hiperbizkaiera, G ≠ erdi-gipuzkera.
- (3) Testuak aztertuz gero, B/G arteko aldea gero eta handiagoa. 10. mendean, txikiagoa.

5. GOGOETAK EBZ-Z ETA EUSKALKI SAILKAPENAZ.

- Euskalkien ohiko sailkapenak (Bonaparte-rena (1869) eta Zuazorena (1998)) soil-soilik sinkronia bat irudikatzeko asmoarekin eginak izan arren, ikuspegi diakroniko batetik interpretatuak izan ohi dira.

- Ikertzaileen ikusmolde dialektologikoa ezer gutxi bereizten da kaleko jendearenetik, zeharo pankronikoa baita: itxuraz, Euskal Herrian ezer gutxi aldatu da antzinako euskaratik hona.

- Inori ez zaio bururatu, bizkaierak eta gipuzkerak, esaterako, kronologia ezberdinak izan ditzaketela. Ez dirudi kontuan hartu denik bizkaierak ez duela “-gaz” betidanik, ez gipuzkerak “zera”, ez zubererak “ü” ere.

- Euskalkien arteko ezberdintasunak azaltzeko bizirik eta indarrean dago aspaldiko hipotesia, hau da, lehenik erromatarren aurreko tribuek eta gero eliz barrutiek euskalkien mugak xeheki markatzen dituztelakoa, hots, euskalkien ispilu direlakoa, ez jakin tribuak eta elizbarrutiak euskalkien kausa diren, edo haien ondorio.

- Pankronismoaren ideia: karistiera eta bizkaiera bat lirateke funtsean, baita barduliera eta gipuzkera, baskoiera eta nafarrera, eta akitaniera eta Iparraldeko euskara ere.

- Euskalkien izenek ere ez dute laguntzen: euskalkiak eta probintziak identifikatu dira Bonapartez geroztik, baina diakronian ezinezkoa da; bai hizkuntzaren historiaren aldetik, baita historiaren aldetik ere (probintziak ez dira betierekoak, eta muga asko 1850. geroztikoak baino ez dira).

- Historizismo faltsu eta dialektologilatriaren itsaso hondargabe honetatik ezer urruntzekotan Mitxelenaren lana dugu.

- Hasteko, gai izan zen 1958 bezain data goiztar batean, artean zeharo ezezaguna zen euskalki berria aurkitu eta ezaugarritzatzeko bestek mesprezatutako bigarren mailako testu batean, Landucci-ren hiztegian, testuak aurkezten dituen ezaugarri linguistikoen oinarri soilarekin. Araberarekin behin betiko konpondu zuen aspalditik zetorren bizkaieraren auzia, honen datuek argi uzten baitute B ez dela besteak ez bezalako euskalkia, denen adar beretik datorrena baizik: denborak Araban egindako galera ikaragarriak itxuratutako ilusioa baino ez zen B-ren ustezko apartekotasuna.

- Mitxelenak bi hizkuntz garai historiko ezberdin proposatu zituen argiki: “aitzineuskara” eta “euskara batu zaharra”.

- Datu historikoek bat etorri behar dute datu linguistikoekin, bai honetan, baita periodizazio lanetan, eta ezin dituzte datu linguistikoak ordezkatu: ez dute ezer ere balio hauen laguntzan agertzen ez badira.